

BALIO PROPOSAMENA

Gu, herri txiki batean bizi gara, eta Salburuatik gauean etxera bueltan goazenean ez dago argirik. Horregatik, argi jasangarri bat egin nahi dugu, eguzki energia funtzionatuko duena, hau da, eguzkiaren energia erabiliko du.

Gure proiektuaren helburua Salburuako eraztun berdeko argi falta konpontzea da, baina modu jasangarrian eta naturari kalterik egin gabe. Argi kutsadura murriztuko du, eta horrela, zerua hobeto ikusi ahal izango dugu gauez. Era berean, eraztun berdeko fauna babestuko du, animaliak lasaiago ibiliko direlako eta ekosistema zainduko da.

Eguzki energiarekin lan egiten duten argiak badaude, baina gurea berezia da. Autogarbitzeko teknologia berritzaileari esker, panelak automatikoki garbi mantentzen dira, hautsa ezabatuz eta horrek errendimendu handia eta mantentze-lan txikia bermatzen ditu. Diseinuari dagokionez, desberdina da ere gure produktuek estetika naturala dute inguruan kamuflatzeko. Egurra bezalako material jasangarriak erabiltzen ditugu, zuhaitz bat imitatuz paisaia ez kaltezteko. Horrela, gure argiak naturarekiko oreka eta jasangarritasuna sustatzen dute.

Horrek energia aurrezten lagunduko du, eta ingurumenari ere onura egingo dio. Gainera, argiak inguruko egoerara egokitu ahal izango dira, denbora pasatzen joan ahala ikasten eta hobeto funtzionatzen.

Laburbilduz, gure eguzki-argi adimenduna jasangarria, eraginkorra eta naturarekiko jasangarria izango da, eta Salburuako eraztun berdearen argi-falta konponduko ditu.